




LEKU BATEK EXISTITZERIK BA OTE DU MAPETAN AGERTU GABE?

Eskolan, irakasleak hurrei haien familien jatorrizko herrialdea mapa batean kokatzeko eskatu die. Layla bila eta bila dabil, baina ez du topatzen.

Nahasturik eta triste itzuliko da etxera...

Laylak amonari galdetuko dio, baita aitonari eta amari ere. Txikiak Palestinaren historia eta bere familiako kideak zergatik diren errefuxiatuak ulertuko du.

“Badira Palestina ez dela existitzen dioten pertsonak. Ez garela existitzen. Baina haien mapek ezin gaituzte ezabatu”.

ISBN: 979-13-88132-31-5 www.nubeocho.com



nubeocho

MAPA BAT PALESTINARENENTZAT



ODEH BETAWI



nubeocho

MAYSA ODEH
ALIAA BETAWI

MAPA BAT PALESTINARENENTZAT






Tall al-Safi
تل الصافي




Lifta
لфта



Isdud
إسدود



Al-Shajara
الشجرة



Dayr Yassin
دير ياسين



Al-Tantura
الطنطورة



Ayn Karim
عين كارم



Al-Qastal
القسطل



Al-Birwa
البروة

Palestinar herriak

Al-Shaykh Muwannis
الشيخ مونس

*Malak-entzat,
nire arimaren arima.*

Maysa Odeh

*Amarentzat,
exilioan nire etxe bakarra.*

Aliaa Betawi



Mapa bat Palestinarentzat
Egalité bilduma

© testuarena: Maysa Odeh, 2024

© irudiena: Aliaa Betawi, 2024

© argitalpenarena: NubeOcho, 2026

© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2026
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *A Map for Falasteen*

Lehen argitalpena: Otsaila, 2026

ISBN: 979-13-88132-31-5

Gordailu Legala: M-473-2026

Donzelli Fietta Agency srls eta Ginger Clark Literary, LLC-rekin
batera publikatua.

Espainian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta dago ale honen kopiaketa.

Helduentzako baliabideak

Edward Said. *La cuestión palestina*. Editorial Debate, 2013.

Ilan Pappé. *La limpieza étnica de Palestina*. Booket, 2014.

Rashid Khalidi. *Palestina: Cien años de colonialismo y resistencia*.
Booket, 2014.

B'Tselem: The Israeli Information Center for Human Rights
in the Occupied Territories, btselem.org

DecolonizePalestine, decolonizepalestine.com

UNRWA: United Nations Relief and Works Agency for Palestine
Refugees in the Near East, unrwa.org

MAPA BAT PALESTINARENTZAT



MAYSA ODEH

ALIAA BETAWI



Laylaren klasean jatorri ezberdinetako haurrak daude.
Egun batean, irakasleak mapamundi erraldoi bat zabaldu zuen lurrean,
eta galdera hau egin zien:

—Jakingo zenukete zuetako bakoitzaren familia nongoa
den seinalatzen?

Denak haien familien historiak
kontatzen hasi ziren, harrotasunez.



Laylaren txanda heldu zenean, baina, bila aritu zen eta...
ez zuen ezer aurkitu.

—Irakasle, zergatik Palestina ez dago mapan? —galdegin zuen.

Irakasleak mapamundiari so egin zion.

—Uste dut leku hori ez dela
existitzen —esan zuen.

Layla triste sentitu zen, nahasturik.
Ulertzea behar zuen, erantzunak behar zituen.

An illustration of an elderly man and a young girl standing under a large, leafy grapevine. The man, wearing a white and black checkered headscarf and a brown vest over a white shirt, is leaning forward and looking down at the girl. The girl, with dark hair, is wearing a yellow dress with green polka dots and a green skirt. They are standing on a patch of green grass. The background is a warm, golden-yellow color with soft, wavy lines. The grapevine has large green leaves and several clusters of purple grapes hanging down.

Layla etxera itzuli zenean,
lorategira irten zen.
Han zegoen aitona,
mahatsondoak zaintzen.

Layla beregana gerturatu zen
eta aitona irribarre egin zuen,
bizitzan lehen aldiz eguzkia
irtetzen ikusi izan balu bezala.

—Zer moduzko eguna izan duzu, maitea? —galdetu zuen.

Aitonak loreak ureztatzen zituen bitartean,
eskolan gertatutakoa azaldu zion neskak.

—Aitona, zergatik Palestina ez da
mapan agertzen?

Aitonak begietara begiratu zion, kezkaturik.
Ondoren, poltsikotik liburuxka txiki
bat atera zuen eta marrazten hasi zen.

Lehenik, antzinako hortz baten itxura zuen
zerbait marraztu zuen, Laylaren dinosauroen
inguruko liburutako fosilen antzekoa.
Ondoren, itsasoko olatuak zirriborratu
zituen mendebaldean; marrak eta mugak
ekialdean. Esku tinkoz, zirkulu txikiak
egin zituen eta bilobak sekula entzun gabe
zituen herri eta hiriei bizia eman zien.
Zirkulu horietako batean idatzi zuen:
“Huwara: gure etxea”.



Amaitutakoan, kontu handiz orria kendu,
tolestu, eta Laylari eman zion.

—Hementxe duzu zure mapa, bihotza —esan
zion—. Aitonaren oparia. Erakutsiozu zure
irakasleari, zure klaskideek ere ikasi
ahal izateko.

Layla etxera sartu zenean, amona bere plater gustukoena sukaldatzen ari zen: fatayer, ziazerba-enpanadila arabiararak. Laylak eskuak garbitu zituen amonari lagundu ahal izateko.



Orea ziazerbaz, intxaurrez eta sumac edo piper hauts gorria bezalako espeziez betetzen zuten bitartean,



Laylak galdetu zuen:
—Amona, zergatik Palestina ez da mapan agertzen?

Amonak arretaz begiratu zion,
eta, ondoren, hizketan hasi zen,
beste nonbait balego bezala.



—Armadun soldaduak haien tankeekin iritsi ziren. Nik zure ama neraman besoetan.
Jordan ibairaino iritsi nintzen ihesi, gure familiari minik egin ez ziezaioten.
Soldaduek gure herriak suntsitu zituzten, eta ondoren, izena aldatu zieten.
Zelaiak eta olibondoak erre zituzten. Gure etxeak eta maite genituen pertsonetako
asko atzean utzi behar izan genituen.

